

Kultur agenda

Norvegiako Ganbera Orkestra kursaalean

Norvegiako Ganbera Orkestrak kontzertua emango du kursaalean hilaren 20an, larunbata. Orkestrak Mozart, Strawinsky eta Haydn- en obrak joko ditu. Lief Ove Andsnes ariko da pianojole eta zuzendari lanetan. Ove Andsnesek 32 urte betetik ez ditu eta, besteak beste, Londresko, New Yorkeko eta Los Angeleseko Philharmonic orkestren zenbait emanalditan parte hartu izan du. Kontzertu honetan Terje Tonnesen Norvegiako biolinjole aipagarrienetakoa ere ariko da. Emanaldia 20.00etan hasiko da.



John Ford Euskaraz

Hilaren 24an, asteazkena, Nosferatu programazioan, John Ford zuzendariaren "Peregrinos" eta "Patruila galdua" filmak pantailaratuko dira Antzoki Zaharrean. "Patruila galdua" jatorrizko hizkuntz bertsoian emango da euskaraz azpituatuta, eta Victor McLaglen eta Boris Karloff dira aktore nagusiak. Emanaldia 20.15ean hasiko da.



Bideo mostra Larrotxenen

Hilaren 23tik 26ra bitartean VII. Bideo Mostra egingo da Larrotxene kultur etxean. Hilaren 23an, asteartea, Irlandari buruzko lana pantailaratuko da: Frank Martin eta Seamus Keltersen "A million Bricks". Hilaren 23an eta 26an fikzio, dokumental eta bideosorkuntza alorretako bideo-lanen txanda izango da. Hilaren 25ean, Carlos F. Herederoren eta Carlos Rodriguezen "Huston y Joyce. Diálogos con los muertos" pantailaratuko da. Emanaldiok 20.15ean hasiko dira. Azkenik, hilaren 26an, ostirala, Bideo Mostra bukatzeko, Gau Ilunean fantasia eta bel-durrezko bideoak proiektatuko dira 22.30etatik aurrera.

Aresti gogoan maskaradaren obra berrian

Maskarada taldeak "Kaio luma zikina" antzezlana taularatuko du Lugaritz kultur etxean hilaren 19an eta 20an, ostirala eta larunbata. Patxo Telleria, Mikel Martinez eta Adolfo G. Gorria Gabriel Arestiren testuez baliatzen dira euskal poetaren obra eta bizitza oholtzan islatzeko. Besteak beste, poesia, antzerkia eta diktadura garaiko euskal kulturaren egoera jorratzen dira "Kaio luma zikina" antzezlanean. Emanaldiak 20.30ean hasiko dira.

